

ERRETIROA AURRERATU



KOEFIZIENTE MURRIZTAILEAK (402/2025 ED)



[\[Abajo en castellano\]](#)

Nola aurreratu dezakezu erretiroa baldintza bereziki gogorretan lan egin baduzu?

KOEFIZIENTE MURRIZTAILEAK (402/2025 ED)

4 02/2025 Errege Dekretuak urte askotan lan bereziki nekagarri, toxiko, arriskutsu edo osasungaitzetan lan egin dutenei erretiroa hartzeko adina aurreratzeko prozedura arautzen du.

Zer dira lan nekagarriak, toxikoak, arriskutsuak edo osasungaitzak?

- **Nekagarritasuna:** esfortzu fisiko konstantea duten lanek, muturreko zarata, hotz edo beroarekiko esposizioa, gaueko txandak, bibrazioak edo indarra edo babes-ekipamenduak etengabe erabili beharra.

- **Toxikotasuna:** produktu edo agente kimiko, fisiko edo biologiko arriskutsuekiko esposizioa.
- **Arriskugarritasuna:** laneko istripuak edo gaixotasun profesionalak gertatzeko arrisku handia duten lanek.
- **Osasungarritasun eza:** epe ertain edo luze-ra osasunari kalte egin diezaioketen lan-inguru-neek.

Zer hartzen da kontuan?

- Zeregin horietako batean gutxienez 15 urtez lan egin izana. Urte horietako bik azken 15 urteen barruan egon behar dute.
- Lan-jarduerak, urteak igaro ahala, gaixotasun, heriotza edo ondorio larriak sortaraztea.
- Gizarte Segurantzak baja medikoak, ezintasunak eta heriotzak bezalako datuak baloratuko ditu.

Zenbat aurreratu daiteke erretiroa?

Aurrerapena lanbide bakoitzari esleitzen zaion koefiziente murriztailearen arabera izango da. Zenbat eta gogorragoa izan lana, orduan eta urte gehiago kendu ahal izango zaizkio erretiro-adinari. Hori bai, inork ezingo du erretiroa hartu 52 urte bete baino lehen.

Aurreratutako denbora hori kotizatutako denbora gisa zenbatuko da, baina pentsioaren ehunekoak kalkulatzeko bakarrik balio du, ez du oinarri arautzailea handitzen.

Horrelakoa da prozesua

- **Prozeduraren hasiera:** ordezkaritza handiena duten sindikatuak edo enpresa-erakundeak bakarrik eska dezakete. Langileak, banaka, ezin dute hori egin.
- **Gizarte Segurantzaren txostena:** Eragindako kolektiboaren osasunari buruzko azterlan bat egiten da, gaixotasunen, istripuen eta adinari eta generoaren arabera datuekin.

- **Txosten tekniko gehigarriak:** Laneko Segur-
tasun eta Osasunerako Institutu Nazionalak eta
Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskaritzak
egindako txostenak kontutan hartzen dira.
- **Ebazpena:** Eskaera ebazteko epea 6 hilabete-
koa da, formalki aurkezten denetik.

Gehiago kotizatzen da honengatik?

Bai. Koefiziente murriztailea duten lanbideetako enpresek eta langileek kotizazio gehigarri bat ordaindu beharko diote Gizarte Segurantzari.

Berrikusi edo ezabatu al daiteke koefiziente murriztailea?

Bai. 10 urtean behin, baldintzak hobetu direla frogatzen bada, koefizientea berrikusi edo ezabatu ahal izango da. Baina berrikuspen horrek ez du atzeraeraginezko izaerarik izango, hau da, ez die eragingo aldaketaren aurretik okupazio horretan lan egin dutenei.

BALORAZIO OROKORRA

Errege Dekretu berria ez da aurrerapen esanguratsua 2011n onartutako legeriarekin alderatuta. Horren aplikazioak estali egiten du erretiro-adinaren igoera orokorra, Rodriguez Zapateroren eta Mariano Rajoyren gobernuek 2011n eta 2013an egindako pentsio-erreformen ondorio zuzena. Izan ere, 2024an, erretiroa hartzeko batez besteko adina lehen aldiz 65 urtetik gorakoa izan zen Espainiako Estatuan. Dena den, ondorioak oso mugatuak izango dira, eta sektore jakin batzuei baino ez diete eragingo, eta ez dute eragin orokorrik izango langile-klase osoarentzat.

Gainera, ez du kontuan hartzen genero-ikuspengia. Errazagoa da arriskugarritasuna edo toxikotasuna egiaztatzea — sektore industrialetan eta maskulinizatuetan — nekagarritasuna baino, askotan sektore feminizatuetan gertatzen baita hori, hala nola zainketetan.

Kritikatu egiten dugu prozedura sindikatu handietara eta patronalera mugatzea, langile eta sindikatu txikiagoak kanpoan utzita, horrek prozesua burokratikoagoa eta ez hain parte-hartzailea egiten duelako.



ANTICIPAR LA JUBILACIÓN



COEFICIENTES REDUCTORES (RD 402/2025)

¿Cómo puedes anticipar la jubilación si has trabajado en condiciones especialmente duras?

COEFICIENTES REDUCTORES (RD 402/2025)

El Real Decreto 402/2025 regula el procedimiento para adelantar la edad de jubilación a quienes han trabajado durante muchos años en ocupaciones especialmente penosas, tóxicas, peligrosas o insalubres.

¿Qué se entiende por trabajos penosos, tóxicos, peligrosos o insalubres?

- **Penosidad:** trabajos con esfuerzo físico constante, exposición a ruido, frío o calor extremos, turnos nocturnos, vibraciones o necesidad de usar fuerza o equipos de protección de forma continua.

- **Toxicidad:** exposición a productos o agentes químicos, físicos o biológicos peligrosos.
- **Peligrosidad:** tareas con alto riesgo de accidentes laborales o enfermedades profesionales.
- **Insalubridad:** entornos de trabajo que pueden perjudicar la salud a medio o largo plazo.

¿Qué se tiene en cuenta?

- Haber trabajado al menos 15 años en una de estas ocupaciones. Dos de esos años deben estar dentro de los últimos 15.
- Que el trabajo cause un alto índice de enfermedades o fallecimientos con la edad, o deje secuelas importantes.
- La Seguridad Social valorará datos como bajas médicas, incapacidades y muertes.

¿Cuánto se puede adelantar la jubilación?

Dependerá del coeficiente reductor que se asigne a cada ocupación. Cuanto más duro sea el trabajo, más años se podrán restar a la edad de jubilación. Eso sí, nadie podrá jubilarse antes de los 52 años.

Este tiempo adelantado sí contará como cotizado, pero solo sirve para calcular el porcentaje de pensión, no aumenta la base reguladora.

Así es el proceso

- **Inicio del procedimiento:** Solo pueden solicitarlo los sindicatos más representativos o las organizaciones empresariales. Las personas trabajadoras, de forma individual, no pueden hacerlo.
- **Informe de la Seguridad Social:** Se realiza un estudio sobre la salud del colectivo afectado, con datos de enfermedades, accidentes, y diferencias por edad y género.

- **Informes técnicos adicionales:** Se tienen en cuenta los informes elaborados por el Instituto Nacional de Seguridad y Salud en el Trabajo, y la Inspección de Trabajo y Seguridad Social.
- **Resolución:** El plazo para resolver la solicitud es de 6 meses desde que se presenta formalmente.

¿Se cotiza más por esto?

Sí. Las empresas y trabajadores de las ocupaciones con coeficiente reductor tendrán que pagar una cotización adicional a la Seguridad Social.

¿Se puede revisar o eliminar el coeficiente reductor?

Sí. Cada 10 años, si se demuestra que las condiciones han mejorado, se podrá revisar o eliminar el coeficiente. Pero esta revisión no tendrá carácter retroactivo, es decir, que no afectará a quienes ya hayan trabajado en esa ocupación antes del cambio.

VALORACIÓN GENERAL

El nuevo Real Decreto no representa un avance significativo respecto a la legislación aprobada en 2011. Su aplicación encubre el aumento generalizado de la edad de jubilación, consecuencia directa de las reformas de pensiones llevadas a cabo en 2011 y 2013 por los gobiernos de Rodríguez Zapatero y Mariano Rajoy respectivamente. De hecho, en 2024, la edad media de jubilación superó por primera vez los 65 años en el Estado español. No obstante, sus efectos serán muy limitados y afectarán solo a ciertos sectores, sin suponer un impacto general para el conjunto de la clase trabajadora.

Además, no tiene en cuenta la perspectiva de género. Es más fácil acreditar la peligrosidad o toxicidad —presentes en sectores industriales y masculinizados— que la penosidad, que se da a menudo en sectores feminizados como los cuidados.

Criticamos que se limite el procedimiento a grandes sindicatos y patronal, dejando fuera a trabajadores y sindicatos más pequeños, lo que hace el proceso más burocrático y menos participativo.